

Euskal ekonomiaren bilakaera 2022IH

2022ko ekainaren 06a



kutxabank
empresas

1

Laburpena

2

Euskal ekonomia

BPGd-a
Barne eskaria
Kanpo sektorea
Lan-merkatua
Inflazioa
Sektore publikoa
Finantza-sektorea
Adierazleak

3

Ingurunea

4

Aurreikuspenak

1. Euskal ekonomiak susperraldia atzeratu du 2022IHn

Zazpi hilabetez jarraian gora egin ondoren, EAEko BPGd-a **urte arteko % 5,7** hazi da 22IHn, eta, beraz, Eurogunean (% 5,1) eta Espainiako ekonomian (% 6,4) izandako hazkundearen erdibidean kokatu da. Horiek horrela, euskal ekonomiak 21IIIHn hasitako suspertze-bideari eutsi dio, **pandemiaren amaierak eta Ukrainako inbasioak** eragindako ziurgabetasun-giro baten erdian, energia-krisi bat eta nazioarteko hornidura-kateen gorabeherak tarteko. Horrek guztiak inflazioa izugarri igotzea eragin du.

Kontsumo pribatua (% 3,1) eta **Kapitalaren Eratze Gordina (% 3,9)** izan dira barne-eskariaren (% 2,9) akuilu; kontsumo publikoaren hazkundera, aldiz, % 0,6ra jaitsi da. Susperraldia **kanpo-sektorearen ekarpen positiboaren (2,8 pp)** eskutik etorri da neurri handi batean, turismoaren normalizazioari eta esportazioen indarrari esker (%13,6) batik bat, prezioen igoera orokor baten babespean. Nazioarteko merkataritzaren irekierari esker gertatu da hori, eta oraindik, lehen hiruhilekoan, inbasio errusiarraren ondorioen zantzurik nabari ez delako.



Lan-okupazioak gora egin du 22IHn, 8.300 langile berrirekin, eta langabezia-tasa % 9,1era murriztu da (% 9,9 IVHn). **22IHko lan-okupazioari** dagokionez, lanaldi osoen baliokide diren 971.920 lanpostu sortu dira, hau da, iazko hiruhileko berean baino 46.000 enplegu gehiago. Horietatik, 39.107 enplegu gehiago izan dira Zerbitzuetan, 5.075 Industrian eta 1.985 Eraikuntzan, eta 50 gutxiago Nekazaritzan.

Etxebizitza, elektrizitatea, gasa eta beste batzuk izan dira, **elikadurarekin** batera, prezioen igoera handienak izan dituztenak. Apirileko datua % 7,8an kokatu da, martxoan % 9,8ra iritsi ostean, eta badirudi tentsioa pixkanaka baretzen hasi dela, erregaiarentzako dirulaguntzei esker. **Azpiko inflazioa % 4,3koa** izan da. Europako diru-politikaren erronka nagusia inflazioa kontrolatzea da, eta, horretarako, prezioak interes-tasen igoeraren bidez kontrolatzeko aukera mahaigaineratu du EBZk, hazkundeari kalterik egin gabe.

Hazkundearen aurreikuspenak beherantz zuzendu dira oro har, eta EAEk **% 4,8raino eta % 3,3raino** jaitsi ditu 2022rako eta 2023rako aurreikuspenak, hurrenez hurren. Ukrainako gatazkaren iraupen luzeak, EBk erregai fosilekiko duen mendekotasun energetiko handiak, nazioarteko osagaien hornidura-kateetan izandako arazoek eta inflazioaren iraunkortasunak eragina izan dute agenteen itzaropenetan, eta, horrenbestez, aurreikuspenak beherantz berrikusi dira erreferentziazko ingurune guztietan.


2. Euskal ekonomia bere ingurunearekin batera ari da suspertzen

Tasas de variación del PIB de la C.A. de Euskadi (%)




Zazpi hilabetez jarraian gora egin ondoren, EAEko BPGd-a **urte arteko % 5,7** hazi da 2022ko lehen hiruhilekoan, eta, beraz, Eurogunean (% 5,1) eta Espainiako ekonomian (% 6,4) izandako hazkundearen erdibidean kokatu da. Horiek horrela, euskal ekonomiak 21IIIHn hasitako suspertze-bideari eutsi dio, **pandemiaren amaierak eta Ukrainako inbasioak** eragindako ziurgabetasun-giro baten erdian, energia-krisi bat eta nazioarteko hornidurakateen gorabeherak tarteko. Horrek guztiak inflazioa izugarri igotzea eragin du.

2. Hazkundearen erdia kanpotik dator



Kontsumo pribatua (% 3,1) eta Kapitalaren Eratze Gordina (% 3,9) izan dira barne-eskariaren (% 2,9) akuilu; kontsumo publikoaren hazkundera, aldiz, % 0,6ra jaitsi da. Susperraldia **kanpo-sektorearen ekarpen positiboaren (2,8 pp) eskutik etorri da neurri handi batean, turismoaren normalizazioari eta esportazioen indarrari esker (%13,6) batik bat, prezioen igoera orokor baten babespean. Nazioarteko merkataritzaren irekierari esker gertatu da hori, eta oraindik, lehen hiruhilekoan, inbasio errusiarraren ondorioen zantzurik nabari ez delako.**


2. Industriaren eta zerbitzuaren dinamismo handia



Iturria: Eustat, gure datuak

Susperraldia orokorra izan da sektoreetan, eta **Industriaren (% 6,5)** eta **Zerbitzuen (% 6)** gorakada nabarmendu bada ere, Eraikuntzak (% 1,9) indarra irabazi du eta lehen sektorean jaitziera-erritmoak behera egin du, -% 1,8an kokatzeraino.


2. Barne-eskaria baretu egin da



PIB Trimestral (demanda)	2021				2022
	I	II	III	IV	I
GASTO EN CONSUMO FINAL	-2,5	18,1	2,4	2,7	2,6
-Gasto en consumo final de los hogares e ISFLSH	-3,7	22,6	2,1	3,0	3,1
-Gasto en consumo final de las AAPP	1,6	5,2	3,5	1,7	0,6
FORMACIÓN BRUTA DE CAPITAL	-1,3	21,4	3,7	4,3	3,9
-Formación Bruta de Capital Fijo en Bienes de Equipo	1,9	41,3	7,6	7,5	6,6
DEMANDA INTERNA	-2,2	18,9	2,7	3,1	2,9
EXPORTACIONES DE BIENES Y SERVICIOS	-2,4	30,1	12,5	11,1	13,6
IMPORTACIONES DE BIENES Y SERVICIOS	-1,4	29,8	10,2	8,1	8,9
PRODUCTO INTERIOR BRUTO a precios de mercado	-2,9	18,6	3,9	4,7	5,7

Barne-eskariaren hazkundera (% 2,9) pandemiaren aurreko mailetara itzuli da, eta etorkizunean izango duen bilakaera inflazioaren gorakadaren indarraren eta Ukrainako gerrak ekarriko dituen ondorioen arabera izango da.





2. Esportazioen gorakada, prezioen igoeraren ondorioz



Iturria: Eustat

Kanpo-sektorearen ekarpen positiboak azaldu du neurri handi batean lehen hiruhileko honetan izandako aurrerapena, baita **Esportazioen % 13,6ko** igoerak eta **Inportazioen % 8,9ko** hazkundera ere. Portaera hori **prezioen igoera handiak (energiarenak batez ere) eragin du, esportazioen balioa handiagotu** duena; izan ere, bolumenari dagokionez, erregistroak apalagoak izan baitira. Euskal esportazioen % 68 EBra bideratzen dira, garrantzi erlatiboa hartu baitu kanpoko helmuga gisa. Sektoreka, ekipamendu-ondasunak eta manufakturak dira gehien esportatzen diren osagaiak, eta produktu energetikoak eta mineralak ere gora egin dute nabarmen.

2. Sektoreen gorakada orokorra eskaintzaren osagaietan




Iturria: Eustat


Eskaintzari dagokionez, mugikortasunari ezarritako murrizketen desagertzeak Zerbitzuak eta Industriak hauspotu ditu batez ere, baina Eraikuntzaren eta lehen sektorearen portaerak ere hobera egin du.

2. Bultzada handia Zerbitzuen eskutik

Estructura y Variación PIB IT22



Aportación al PIB IT22 (pp)




Iturria: Eustat, gure datuak


EAEko hazkundera Zerbitzuei zor zaie nagusiki, baita Industriari ere. Bada, euskal BPGd-aren % 62,5 **Zerbitzuetatik** dator, termino errealetan % 6,0 hazi baitira 22IHn, 3,7 pp-ko ekarpenarekin. **Industriak** ere pisu handia du: sektorearen ekarpena % **21,9**koa izan da eta % 6,5ra **igo da, eta**, oro har, **1,4 pp-ko ekarpena egin dio hazkunderari**; azkenik, **Eraikuntzak**, euskal BPGd-aren % 5,4arekin, % 1,9ra igo da termino errealetan, eta lehen sektorea, % 0,7ko pisuarekin, -% 1,8 uzkurdu da.

2. Sektorekako produktibitatearen rankinga

Estructura Empleo y PIB IT22



Productividad por sectores IT22



Iturria: Kontu ekonomikoak. Eustat. Gure datuak


Kalkulatutako produktibitate-tasarik handiena segmentu industrialak izan du, enpleguaren % 20,8arekin eta outputaren % 23,6ko ekarpenarekin, eta **produktibitate handia** erakutsi du (113,2). Atzetik, Zerbitzuak (84,8) eta Eraikuntza (83,5) izan ditu, eta lehen sektoreak produktibitate apalena erakutsi du.

2. Okupazioa gora eta langabezia behera, % 9,1eraino

Tasa de ocupación: IT22


8,9%

■ Total ■ Hombres ■ Mujeres



46.117 empleados más que en IT21

Puestos de trabajo equivalentes a tiempo completo




Iturria: Kontu ekonomikoak. EPA. Eustat.

Lan-okupazioak gora egin du 22IHn, 8.300 langile berrirekin, eta langabezia-tasa % 9,1era murriztu da (% 9,9 IVHn). **22IHko lan-okupazioari** dagokionez, lanaldi osoen baliokide diren 971.920 lanpostu sortu dira, hau da, iazko hiruhileko berean baino 46.000 enplegu gehiago. Horietatik, 39.107 enplegu gehiago izan dira Zerbitzuetan, 5.075 Industrian eta 1.985 Eraikuntzan, eta 50 gutxiago Nekazaritzan.


2. Prezioen igoera orokorra, EBZren diru-politikaren kalterako

Inflación por sectores

Evolución CAE





Evolución de la Inflación



Iturria: INE

Etxebizitza, elektrizitatea, gasa eta beste batzuk izan dira, **elikadurarekin** batera, prezioen igoera handienak izan dituztenak. Apirileko datua % 7,8an kokatu da, martxoan % 9,8ra iritsi ostean, eta badirudi tentsioa pixkana baretzen hasi dela, erregaientzako dirulaguntzei esker. **Azpiko inflazioa % 4,3koa** izan da. Inflazioa kontrolatzea da Europako diru-politikaren erronka nagusia, eta, horretarako, prezioak interes-tasen igoeraren bidez kontrolatzeko aukera mahaigaineratu du EBZk, hazkundeari kalterik egin gabe.

2. Errenten bidezko diru-bilketaren beherakadak eta kontsumoaren gorakadak superabita ekarri dute




Apirilera arte metatutako **diru-bilketak 4.080 M euroko** diru-sarrerak utzi dizkigu, aurreko ekitaldian baino -% 2,3 gutxiago. Izan ere, zuzeneko zergek behera egin dute (-% 10,6), eta ekarpenik handiena PFEZtik etorri da, **1.603 M** euroekin (-% 11,1). Zeharkako zergen bidezko diru-sarrerak, aldiz, gora egin dute (% 6,2), eta BEZetik etorri dira gehienak, **1.924M** euroekin (% 16,9). Laugarren hiruhilekoan, EAEko zor-maila % **15,6**raino jaitsi da, eta **602 M** euroko soberakina sortu da, 12.945 M euroko baliabide ez-finantzarioei eta 12.343 M euroko enpleguei esker.


2. Uzkurtze txikiagoa kreditu pribatuan eta igoera txikia gordailuetan

Txostenaren itxieran BdEk argitaratutako azken datuak: 2021eko abendua

Créditos S. Privado



Depósitos S. Privado




2021eko abenduko datuen arabera, **sektore pribatuarentzako kredituen** uzkurtze-erritmoa murriztu egin da (ESP: -% 0,1 eta EAE: -% 1,9), baita gordailu pribatuen hazkundera ere EAEn (% 1,0). Espainiak, aldiz, % 4,5eko tasari eutsi dio.

2. Kredituak indarra galdu eta behera egin du, eta gordailuek gora egin dute, baina apalago.

Txostenaren itxieran BdEk argitaratutako azken datuak: 2021eko abendua



% de variación de Créditos y Depósitos S. Privado



Iturria: BdE. Gure datuak

2021eko abenduan, sektore pribatuaren gordailuen saldoa 86.814 M eurora igo da (+% 1,0), eta kreditu pribatuena, berriz, 60.815 M eurotan kokatu da (-% 1,9). Aldea, beraz, 26.000 M euro ingurukoa izan da. Kredituaren uzkertze arinaren eta gordailu pribatuaren gorakadaren ondorioz, % 70 inguruan kokatu du bi osagaien arteko harremana (Espainian, aldiz, % 84,4ra jaitsi da).

2. Hipoteken merkatuak gorako bideari eutsi dio




Iturria: INE. Gure datuak

Hipoteken kontratazioa gora ari da etengabe, eta finantza-krisiaren aurreko maximoetara iritsi da. Portaera horren atzean, pandemiarekin lotutako bizitegi-**ohitura aldaketez** gain, hainbat merkaturen **ziurgabetasun** eta hegazkortasun handia dago, **aktibo higiezin** erakargarritasuna areagotzen duena, energia-krisiarekin, hornidura-zailtasunekin eta Ukrainako gatazkaren ondorioekin lotutako inflazio handiak eragindako **balio-galeraren kontra babesteko**. Bada, azken hamabi hiletan **metatutako hipoteka-maileguk % 40,1 egin dute gora merkatu orokorrean eta % 18,7 euskal merkatuan**.

3. Berrankortasunaren susperraldiak ez du etenik





Evolución de la morosidad y cobertura




2022ko martxoaren amaieran, **finantza-sistemaren** OSR kredituaren berankortasun-tasak pixka bat behera egin du, eta % **4,24an** kokatu da: OSR kredituaren saldoa $-0,25$ jaitsi da martxoan, eta kreditu zalantzarrien saldoa, berriz, $-1,34$ murriztu da hil berean. Saldo zalantzarrien urte arteko murrizketa (-3.495 milioi) kreditu-saldoaren murrizketaren (-4.145 milioi) ia % 85 da. Kreditu zalantzarrien saldoa 51.485 milioikoa da orain.

2. Euskal ekonomia uneko adierazleen arabera...

MENSUALES	nov-21	dic-21	ene-22	feb-22	mar-22
IPI (INE)	8,4	6,0	10,6	6,8	2,6
Matriculación de turismos (Ikerbide 1.25.3)	-21,7	-30,7	nd	13,8	2,6
Hipotecas. Número (INE)	16,5	6,3	14,8	17,3	22,2
Hipotecas. Importe (INE)	21,5	6,3	16,5	21,8	27,1
Compraventa viviendas	15,3	11,3	18,5	13,3	18,5
Recaudación DDF: Total impuestos (GV)	14,0	14,4	-57,6	12,6	10,2



3. Euskal ekonomiak ere beherantz zuzendu ditu bere aurreikuspenak



Iturria: INE, Eustat eta gure datuak

Hazkundearen aurreikuspenak beherantz zuzendu dira oro har, eta EAEk % **4,8**raino eta % **3,3**raino jaitsi ditu 2022rako eta 2023rako aurreikuspenak, hurrenez hurren. Ukrainako gatazkaren iraupen luzeak, EBk erregai fosilekiko duen mendekotasun energetiko handiak, nazioarteko osagaien hornidura-kateetan izandako arazoek eta inflazioaren iraunkortasunak eragina izan dute agenteen itxaropenetan, eta, horrenbestez, aurreikuspenak beherantz berrikusi dira erreferentziazko ingurune guztietan.


3. Euskal ekonomia. Aurreikuspenak

Euskadi	PIB	
Panel de Previsiones	2022	2023
Confebask	5,9	-
Hispalink (VAB)	4,3	2,7
BBVA	3,3	2,6
CEPREDE	4,6	3,7
Gobierno Vasco	4,5	4,1
Media	4,5	3,5
<i>Máximo</i>	<i>5,9</i>	<i>4,1</i>
<i>Mínimo</i>	<i>3,3</i>	<i>2,6</i>

Fuente: DEP-mayo 2022

4. Suspertze-bidean dagoen Eurogunea gerrak belztuta

IHS Markit Indice PMI compuesto de la Zona euro Mayo 2022



[PMI: IHS Markit](#), Eurostat

Ukrainako gerraren joan-etorriak, hornidura-arazoak eta inflazio menderakaitza gorabehera, Euroguneak **hazkunde sendoa** izan du maiatzean. Zerbitzuek hedapen handiagoa erakutsi dute, Omikronarekin lotura murrizketak kendu ostean izandako eskari handiagoaren ondorioz. Manufakturak, ordea, apalago hazi dira. Ondasunen eta zerbitzuen prezioak ere asko igo dira, nahiz eta tasa aurreko hilekoa baino apalagoa izan.

4. Gerrak eragindako susperraldiaren atzerapena

BPGd-aren hazkundera Spainian

BPGd % 6,4 (u/u) 022IHn

(PIB real, variación porcentual anual)	2021	2022	2023
Producto mundial	6,1	3,6	3,6
Economías avanzadas	5,2	3,3	2,4
Estados Unidos	5,7	3,7	2,3
Zona del euro	5,3	2,8	2,3
Alemania	2,8	2,1	2,7
Francia	7,0	2,9	1,4
Italia	6,6	2,3	1,7
España	5,1	4,8	3,3
Japón	1,6	2,4	2,3
Reino Unido	7,4	3,7	1,2
Canadá	4,6	3,9	2,8
Otras economías avanzadas	5,0	3,1	3,0
Economías emergentes y en desarrollo	6,8	3,8	4,4

Producto interior bruto
Volumen encadenado. Tasas de variación interanual (%)



NDF eta INE


Ukrainako gerrak susperraldia atzeratu du, hazkunderetikiko sentikorrek diren herrialdeetan bereziki. Horrela, kalkuluen arabera, **Eurogunea** % 3,6 inguru haziko da 2022an eta 2023an. Askotariko portaerak izan dira ekonomia aurreratuetan, haiek antzeman baitituzte gehien gerraren ondorioak, eta % 3,3tik % 2,4ra igaro dira. Gorabidean dauden eta garatzen ari diren ekonomiek, ordea, gora egin dute.

Espainiako ekonomia, bestalde, asko hazi da lehenengo hiruhilekoan, % 6,4raino; hala ere, 2022rako BPGd-aren hazkunde aurreikuspena % 4,3ra murriztu da. Eskari nazionalaren ekarpenak 3,3 puntu portzentual egin du atzera, kontsumo publikoaren, pribatuaren eta inbertsioaren beheranzko berrikuspenaren ondorioz. Ekitaldi honetan espero den inflazioa % 6,9koa da; langabezia-tasa, berriz, % 13,2koa.

4. Kanpo-sektorearen ekarpen handia inflazio menderakaitz baten erdian


Demanda nacional y externa

Aportaciones al crecimiento interanual en volumen del PIB



Iturria: INE

IPC



Iturria: Funcas

Kanpo-sektoreak hazkundeari eginiko 3,1 pp-ko ekarpena % 3,3 hazi den eskari nazionaletik hurbil kokatu da. Gaur egungo egoera azaltzen duen ezaugarrietako bat ziztu bizian goraka ari den inflazioa da, batez ere produktu energetikoen bilakaeraren ondorioz. Aurreikuspenen arabera, 22HIn goia jo ondoren, fenomenoak ekitaldi osoan eutsiko dio, eta pixkanaka apaltzera egingo du 2023an, nahiz eta maila altuetan jarraitu eta EBZk interes-tasak igotzea erabaki, diru-politika normaltasunera itzultzeko faseari hasiera emanez.

4. Espainiako ekonomiaren hazkunde aurreikuspenak

Table A19.1: Key economic and financial indicators

	2004-07	2008-12	2013-18	2019	2020	2021	forecast	
							2022	2023
Real GDP (y-o-y)	3.6	-1.3	2.0	2.1	-10.8	5.1	4.0	3.4
Potential growth (y-o-y)	3.6	1.2	0.3	1.0	0.2	0.5	1.2	1.3
Private consumption (y-o-y)	3.9	-2.0	1.5	1.0	-12.0	4.6	0.8	3.8
Public consumption (y-o-y)	5.7	1.4	0.6	2.0	3.3	3.1	-0.5	0.4
Gross fixed capital formation (y-o-y)	5.7	-8.5	3.4	4.5	-9.5	4.3	8.3	5.8
Exports of goods and services (y-o-y)	4.6	1.0	4.3	2.5	-20.1	14.7	13.6	4.6
Imports of goods and services (y-o-y)	8.3	-5.2	4.1	1.2	-15.2	13.9	8.3	4.8

Europako Batzordea: 2022 Country report Spain

Espainiako seihileko txostenean, Europako Batzordeak ohartarazi du **zor publiko**, pribatu eta kanpoko zor handia eta **langabezia-tasa altuak** direla "mugaz gaindiko garrantzia" duten "kalteberatasunak", eta, beste urte batez, bertan behera utzi du pandemiaren aurretik nagusi ziren Egonkortasun eta Hazkunde Itunaren Arauen berraktibazioa.

4. Aurreikuspenen taula. Espainia

Última actualización

may-22

España

Panel de Previsiones	PIB		IPC		PARO (EPA)	
	2022	2023	2022	2023	2022	2023
AFI	4,3	3,0	6,0	2,0	13,3	13,0
BBVA	4,1	3,3	7,0	2,5	14,2	13,8
Caixabank	4,2	3,8	6,8	1,1	13,6	12,5
CEEM	4,3	3,0	7,1	3,1	13,6	12,8
CEPREDE	4,9	2,6	8,0	2,4	14,0	13,9
CEOE	4,2	3,2	7,0	1,9	13,7	12,9
Funcas	4,2	3,3	7,0	3,1	13,4	12,9
ICAE-UCM	4,3	3,3	7,2	2,6	13,7	13,0
IEE	3,9	2,8	6,9	1,7	14,1	13,5
Intermoney	4,7	3,6	6,5	2,2	14,2	13,2
CONSENSO (media)	4,3	3,0	6,9	2,2	13,7	13,2
Máximo	4,9	3,8	8,0	3,3	14,2	14,3
Mínimo	3,7	1,9	6,0	1,1	13,0	12,5
PRO MEMORIA						
Gobierno (abril 22)	4,3	3,5	-	-	12,8	11,7
BdE (abril 21)	4,5	2,9	7,5	2,0	13,5	13,2
CE (mayo 22)	4,0	3,4	6,3	1,8	13,4	13,0
FMI (abril 22)	4,8	3,3	5,3	1,3	13,4	13,1

Fuente: funcas

Euskal ekonomiaren bilakaera 2022IH

2022ko ekainaren 06a



kutxabank
empresas